



COVID-19 NEWSLETTER

Mexiko 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak

<p>PGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an (Mexikoko Bankuaren arabera)</p> <p>% -8,16</p> <p>Nazioarteko erakundeek aurreikusten dute % 7 eta % 9,5 bitartean jaitsiko dela</p>	<p>Inflazioa gaur egun (maiatza)</p> <p>% 4,28</p> <p>2020rako aurreikuspena: % 3,04</p>
<p>Manufakturako PMI Indizea ekainaren 1ean</p> <p>38.30</p>	<p>Langabezia</p> <p>% 4,7koa 57,3 milioiko biztanleria landunarekin alderatuta.</p>

EUR/MXN kanbio-tasa (2020ko ekainaren 2an): 24,29

Inpaktua sektore industrialetan

⬇️ Sektore kaltetuenak: automozioa, elektriko-elektronikoa, jostintza eta jantziak, ekipo medikoak, sektore aeroespaziala, etxetresna elektrikoak, altzariak, produktuen birmanufaktura

Eraikuntza, meatzaritza eta garraio sektoreetako gutxienez 18.650 enpresak euren jardura berrabiaraziko dute ekainaren 1etik aurrera, Aseguru Sozialaren Institutu Mexikarrak (IMSS) inposatutako jarraibide eta protokolo sanitarioetako 78 puntuak erregistratu, auto-ebalatu eta bete ondoren

Energia berriztagarrien sektoreko elkarteek diote egoerak honek eragina izango duela abiatzeko puntuan zeuden 28 proiektutan (eguzki energiaren eta energia eolikoaren arlokoak), eta eraikitzen ari ziren beste 16 proiektutan, zeintzuetan 6.400 milioi dolarreko inbertsioak egingo baitira, nagusiki atzerriko enpresenak

✅ Eszenatoki konplexu honen erdian, badaude albiste onak ere: esportaziorako nahasketaren prezioa 31,14 dolarretan itxi zen atzo, pandemiaren unerik gogorreanean balore negatiboetan egon eta petrolioaren prezioen gerra jasan ondoren. Nazioarteko ekoizle handiek ekoizpena murrizten jarraitzeko asmoa dute gutxienez beste hiru hilabetez, eta baliteke hori aste honetan bertan negoziatzea

Inpaktua zerbitzuetan


⬇️ Aurreikuspenen arabera, hauek dira epe laburrean kaltetuen izango diren sektoreak: aire-konpainiak, garraioa, hotelak, jatetxeak eta dendak. Gainera, egoerak ondorio zuzenak izango ditu turismoaren sektorearekin hertsiki lotutako erakundeetan

Publikoari zabaldutako negozioak (departamentuetako dendak, tabernak, jatetxeak...) irailetik aurrera hasiko dira lanean, itxialdia arintzeko neurrien arabera. Horrek asko zailduko du negozio horietako askoren biziraupena



Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Interes-tasak: % 5,5erainoko murrizketa (% 7tik)
- ❖ Merkatuak: FTSE indizea: **119,000.43 +1481.88 +% 1.26**



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Neurri fiskalak

- ❖ Andrés Manuel López Obrador presidentek esan zuen COVID-19ak eragindako egoera honetan momentuz ez dela zergarik murriztuko ez eta enpresentzako pizgarri fiskalak sustatuko, baina aldi berean bermatu zuen ez dela aldaketarik emango politika fiskalean eta ez dela zerga berriak ezarriko



Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Finantza erakundeek 4 hilabeterainoko luzapenak eskaini dituzte hipoteken ordainketak egiteko eta aukera ematen ari dira kreditu pertsonalen ordainketak atzeratzeko
- ❖ Merkatuan likidezia mantentzeko, Mexikoko Bankua finantzaketa gehiago ematen saiatuko da, 50.000 milioi peso askatuz (2.000 milioi euro) Mexikoko banku sektorearentzat
- ❖ Mexikoko Bankuak apirilaren 21ean iragarri zuen onartu diren ekintzen helburua dela finantza-sistemaren funtzionamendua babestea 750.000 milioi pesorekin. Ekintza horiek lehenagotik inplementatutako kopuruei gehitu zaizkie, eta hala, guztizko laguntza 2019ko BPGren % 3,3 da. Hauek dira hartu diren neurriak: likidezia handitzea, titulu hautagarriak emendatzea likidezia errazteko eta dibisa-aldaketako operazioak egiteko, gobernu-baloreak epe barruan erreportatzeko leihatila, bermeen aldi-bateko trukeetarako leihatila, titulu korporatiboak erreportatzeko erraztasunak, finantza erakundeak eta banka unibertsaleko erakundeak hornitzea ETEentzako eta pertsona fisikoentzako kredituak bideratzeko, gobernu-baloreen eta kanbio-estaldura likidagarrien trukea Estatu Batuetako dolarretan duten aldaeraren arabera, herrialdean helbideratuta ez dauden kontraparteekin

Dirulaguntzak eta mailegu publikoak



- ❖ 2.100 milioi pesoko (100 milioi euro) kredituak emango dira etxebizitzetarako kreditu pertsonaletan eta sektore formal eta informaleko familia-enpresa txikientzat
- ❖ Pentsioaren ordainketa 4 hilabete aurreratuko da 8 milioi pertsona nagusientzat eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzat, guztira 42.000 milioi peso (2.000 milioi euro)

Lan-indarra










- ❖ Enpresek Covid-19agatik jasan dituzten kalteak arintzeko, Mexikoko Gizarte Segurantzako kontseilu teknikoak aukera eskaini zuen patronalen kuotak 12, 24 edo 48 hilabetez atzeratzeko
- ❖ Aurreikusi da 2 milioitik gora enplegu sortuko direla legealdi honetako azpiegitura proiektu garrantzitsuenetan lan egiteko: "Tren maya", Dos Bocas-eko birfindegia eta Santa Lucía-ko aireportua







MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

-  Ez zaio oztoporik jarri **merkatu-gaien garraioari**. Ikusi da garestitu egin direla garraioen prezioak eta zerbitzu logistikoak
-  Merkataritza elektronikoaren erabilera asko hazi da urruntze soziala ahalbidetzeko, eta horrek oso efektu positiboa izan du sektore logistikoan, bai nazioarteko bidalketei dagokienez eta baita ere azken miliako banaketan
-  **Itsasoko merkatu-gaien garraioa** hazi egin da, Txinako eta Asiako beste herrialde batzuetako ekonomien berririkieraren ondorioz hornikuntza-kateak berregokitu egin direlako
-  Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak (SCT) jakinarazi zuen Mexikoko portuetan 20 oineko 2.138.261 edukiontzi (TEU) kudeatu zirela aurtengo urtarrila eta apirila bitartean. Horrek esan nahi du % 7ko beherakada izan dela 2019ko lehen lauhilekoarekin alderatuta (2.300.088 edukiontzi kudeatu ziren)
-  **Burdinbideetako garraioa:** 2020ko urtarriletik apirilera, Mexikoko Burdinbideetako Sistemak (SFM) jakinarazi du 40.590.000 tonako karga-trafikoa izan duela, 2019an baino % 0,8 handiagoa
-  **Aireko garraioa:** kalkulatzen da Mexikoko aireko garraio sektoreak 5.300 milioi dolarreko galerak (mdd) izango dituela pandemiaren ondorioz, eta zuzeneko 97.000 enplegu eta zeharkako beste 437.000 galduko direla
-  **Lurreko garraioa:** Intermodal Cross Border konpainiak (Estatu Batuak eta Mexiko arteko edukiontziak mobilizatzen dituenak iparraldeko mugatik) dinamismo handia izan zuen lehen hiruhilekoan, baina 13. astearen bukaeratik (2020ko martxoak 27) 18. astean eskuratu dugun azken txostenera (2020ko maiatzak 2) jaitsiera handia (% -30,8) izan du 2019. urteko epealdi berarekin alderatuta

Biztanleriaren mugikortasuna

-  Ez dago derrigorrezko berrogeialdirik. Kutsaturik izan ez duten 15 estatutako 259 udalerritan hainbat espazio irekiko dituzte hesi sanitarioekin, maiatzaren 18tik aurrera. Gainerako udalerrietan, maiatzaren 18tik aurrera, pandemia aurreko egoerara itzultzen hasiko dira semaforo- sistema batekin, neurriak lasaituz maiatzetik irailera arte 
-  Bertan behera gelditu dira sektore publikoko eta sektore pribatuko jarduerak eta bilera fisikoak, joan-etorriak edo bidaiak egin beharra dakarten jarduera eta ekitaldi sozialak, krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren funtzioak izan ezik. Gobernuak ekonomia berrireki eta bizitza sozialera itzultzeko plana aurkeztu zuen: 3 faseko plan bat da, jarduera-semaforoak dauzkana eta mailaka inplementatuko dena irailera arte

Maiatzaren 18tik (astelehena) aurrera aldatu egin dira oinarritzko jarduerak: eraikuntza, meatzaritza eta garraio-ekipoen fabrikazioa ere ezinbesteko industrien zerrendan sartu dira, eta euren jarduerari ekin diote ekainaren 1etik aurrera
-  Eskolak irekiko dira. “Municipios de la esperanza” direlakoetan, hau da, kutsaturik gabeko udalerrietan maiatzaren 18tik aurrera. Gainerakoetan, oinarritzko hezkuntza abuztuan hasiko da eta unibertsitateetako irailan



Gomendatzen da:



- **Atzerrian dabiltzan Mexikoko biztanleak Mexikora itzultzea**
- **Ez irtetea Mexikotik** guztiz beharrezkoa ez bada

Mugetako egoera

Beste herrialde batzuekiko mugak irekita daude eta ez da aplikatzen prozedura kritikorik, baina pandemiak jota dauden herrialdeetatik datozen pertsonen kontrola egiten zaie aireportu eta portuetan

Kanadak, AEBek eta Mexikok ekainaren 22ra arte luzatu dute **“funtsezkoak ez diren” arrazoiengatik egiten diren bidaiantzat** (turismoa) **mugak ixteko** akordioa

Gobernuak ez ditu mugatu hegaldiak, baina aire-konpainia gehienek nabarmen murriztu dituzte herrialde barruko zein nazioarteko joan-etorriak, besterik adierazi arte. Maiatzaren 2tik, Aeromexico-k berriro eskaintzen du Espainiarako hegaldi zuzen bat astero, eta Aeromexico, Air France eta KLM konpainiek astean 3 hegaldi mantendu dituzte Amsterdamera eta Parisera